

ALTERNATIBAREN ESTATUTUAK

2010-10-30

HASIERA: ALTERNATIBAREN IDEOLOGIA ETA ANTOLAKUNTZA IRIZPIDEAK

1.- Egitarau eta errealtate politikoaren arteko koherentzia oinarrizko baldintza da.....	3
2.- Erroko demokrazia: emantzipazio prozesu eta agenteei loturik zein kontzeptua.....	4
3.- Ezkerraren iraultza: antolakuntza kultura benetan demokratikoak duen garrantzia.....	6
4.- Alternatibaren estatutuen estrategia ardatza eta irizpideak: militantzia demokrazia erroko demokraziaren eta feminismoaren lotura da.....	8

I. TITULUA. ALTERNATIBAREN IZAERA ETA IRIZPIDEAK..... 10

I. Atala: Izaera.....	10
II. Atala: Jarduera esparrua	10
III. . Atala: Egoitza eta ikurrak	10

II. TITULUA. ALTERNATIBA OSATZEN DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK 10

I. Atala. Afiliazioa eta berau galtzea	10
II. Atala. Alternatiban afiliaturiko pertsonen eskubide eta betebeharrak.....	11
Lehen zatia. Afiliatuen eskubideak.....	11
Bigarren zatia. Afiliatuen betebeharrak.....	12
III. Atala. Alternatibaren karguen arduradunen eskubide eta betebeharrak	13
Bigarren zatia. Alternatibaren karguen arduradunen betebeharrak.....	14
Hirugarren zatia. Alternatibaren kargu ordainduetan jarduteko mugak.....	15

III. TITULUA. ALTERNATIBAREN ANTOLAKETA..... 15

I. Atala. Parte hartze zuzeneko organoak: Nazio Biltzarra, Tokian Tokiko Biltzarrak eta Taldekako Osatze Mahaiak	15
Lehen zatia. Nazio Biltzarra	15
Bigarren zatia. Tokian Tokiko Biltzarrak	16
Hirugarren zatia. Taldekako Osatze Mahaiak.....	17

EMAKUMEEN GUNE AUTONOMOA	18
Lehen zatia. Nazio Kontseilua.....	20
Bigarren zatia. Nazio Koordinakundea	21
III. Atala. Idazkaritza Teknikoa.....	22
IV. Atala. BERME BATZORDEA.....	22
IV. TITULUA ZIGOR ARAUDIA ETA GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURA	23
I. Atala. Arau-haustek eta zigorrak.....	23
II. Atala. Zigor prozedura.....	24
Lehen zatia. Zigor eskumena eta prozedura bermeak.....	24
Bigarren zatia. Prozeduraren tramitatzea.....	24
Hirugarren atala. Erresoluzio fasea eta helegiteak.....	25
III. Atala. Arau-hausteen epez pasatze datak.....	25
V. TITULUA. HAUTES ZERRENDAK OSATZEKO PROZEDURAK	25
I Atala. Irizpide orokorrak.....	25
II. Atala. Udal hautes zerrendak osatzea.....	26
III. Atala. Lurralde Historikoetarako hautes zerrendak osatzea.....	26
IV. Atala. Nazio zein naziogaindiko karguetarako hautes zerrenda osatzea.....	27
V. Atala. Erakundearen presentzia gabeko zonaldeetarako hautes zerrendak osatzea.....	27
VI. TITULUA. AFILIATUEN DATUEN KUDEAKETA	27
I. Atala. Alternatibaren kide izateko baldintzak.....	27
II. Atala. Afiliazio prozedura	27
III. Atala. Afiliatuen trebakuntza	28
IV. Atala. Biltzar aldaketa	28
V. Atala. Informazio eta artxibo betebeharra	28
VI. Atala. Tokian tokiko lokalen, egoitza nagusien eta helbideen betebeharra.....	29
VII. TITULUA. ALTERNATIBAREN EKONOMIA ANTOLAKETA.....	29
I. Atala Irizpide orokorrak.....	29

II. Atala. Patrimonia erabiltzeko gaitasuna	29
III. Atala. Afiliazio kuotak.....	30
IV. Atala. Kargu publikoak dituztenen soldatak	30
V. Atala. Alternatibaren aurrekontua.....	30
VI. Atala. Baliabide ekonomikoak banatzeko irizpideak.	30
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	31

HASIERA: ALTERNATIBAREN IDEOLOGIA ETA ANTOLAKUNTZA IRIZPIDEAK

1.- Egitarau eta errealitate politikoaren arteko koherentzia oinarrizko baldintza da

Sozialismoa, sozialismoak, prozesu dinamikoak dira, biziak, etengabe euren burua osatzen ari direnak errealitatearekiko, ohiko gertaerei eta geure orainarekiko harremanaren eraginez. Hala, proposamen sozialistak gai badira egun indarrean den sistemari alternatiba zaizkion alternatibak garatzeko, errotik ezberdina den mundu baten bideragarritasuna argi utzirik, herritarren gehiengo zabalak lortu ahalko ditu.

Illo honetan, arrazoi bikoitza dela eta, Alternatibak uko egiten dio sozialismoa kapitalismo ondoreneko sistema delako ikuspegiari, une egokian eraikitze zain dagoen paradisu urruna delako ideari. Batetik, egun gehiengo zabalak zapaltzen dituen mendekotasun sistemak -kapitalismoa, baina baita patriarkatua, produktibismoa, arrazakeria, kolonialismoa, politika eta kultura homogenezazioa ere-erabat gainditzeko proposamen osatua delako. Bestetik, sozialismoak egun eta orain sortzen diren estrategiek ere osatzen dutelako, ez soilik etorkizun gertu ala urrun bati begiratzen dioten horiek. Honakoak baditugu geure artean, eta tokia dute hainbat kultura, ekimen, estrategia, prozesu eta eragiletan. Geure helburuak, beraz, errealitate horiek indartzea, lotzea, egituratzea, biderkatzea eta agerian uztea behar du izan, egun indarrean den sistemaren alternatibak eraikitze aldera, oraina eta etorkizunaren arteko dialektika etengabea, ekintza eta proposamenak uztarturik.

Hori dela eta, Alternatibak sozialismoa ez du bat-batean etorriko zaigun oparizat, baizik eta egunerokotasunetik eta atzera pausorik gabe denon artean sortzen dugun errealitatetzat du, egungo mendekotasun sistema anitzari nagusitasun esparruak lehiatuko dizkiona, horretarako arlo guztietan, gaur eta hemen hasita, egitura eraldaketa baten mesedetan borrokaturik, berdintasun, justizia eta norbanakoen, gizarte eta natur eskubideak kontuan harturik.

Hala, egitea proposatzen dena eta egiten denaren arteko koherentzia, agenda eta errealitate politikoaren artekoa beraz, erabatekoa izatea komeni da, alternatibak osatzeko bidean aurrera egingo bada eta gizartearen oniritzia lortuko bada. Bide honetan, irizpide eta balio sozialistek uneoro azaldu behar dute, prozesuaren eta bukaerako helburuaren arteko bereizketarik egin gabe. Borrokaren esparru ezberdinak, denak lehentasunezko baitira, orekatuko dituen agenda politikoa; bestelako politika eta gizarte eragileen multzoarekin elkarlana eta lotzeko borondatea; analizatzeko eta proposamenak egiteko gai den feminismoa; eta erroko demokrazia edozein prozesu emantzipatzaile nahitaez lotua zaiona; hauek guztiek edozein politika estrategiaren muina behar dute izan, ez soilik balizko gizarte sozialista batean eman beharreko baloreak.

2.- Erroko demokrazia: emantzipazio prozesu eta agenteei loturik zaien kontzeptua

Sozialismoa ekimen emanzipatzailea izango da bere jarduna gizarte gehiengo zabalaren kalitatezko parte hartze aktiboan oinarrituz gero, hori helburutzat hartzen badu. Gehiengoak, politika zein ekonomia, kultura eta gizarte esparruetan, euren eredu eta lehentasunak definitzeko gai diren heinean hitz egin ahalko dugu herri borondateak arautzen duen gizarte alternatiboaz.

Hala, demokrazia eta sozialismoa kontzeptu banaezinak dira, elkarri lotuak. Ez da sozialismorik gehiengoak politikak erabakitzeke eta gauzatzeko esparruetatik at baldin badaude; ez da demokraziarik ez badago norbanakoen zein gizarte eskubideek ez badute erabateko bermerik.

Horixe da zehazki egungo testuinguruko dinamikarik esanguratsuenetakoa: herritarrek jardun demokratikoa gauzatzeko esparruen eskastea, mundu mailako kapital pilatze estrategiaren mesedetan. Pobrezia, baztertzea, desberdintasuna, mendekotasuna eta geure burua babesteko gaitasun eza zabaltzen dituen eredu zabaltzeko, bide bakarra herri erabakiak hartzeko esparruak errotik moztea da. Adibidez eredu bakar moduan ordezkartza bitarteko demokraziak babestuz, giza eskubideen aurkako erasoak ustezko demokraziaren izenpean ezkututzen diren gobernuak babestuz, nazioarteko erabakien gaineko gizarte kontrola saihestuz.

Ildo honetan, sozialismoak erroko demokrazia bere proiektu politikoaren ardatz bihurtu behar du. Eduki politiko alternatibo batzuk boterera eramateaz gain, botere kontzeptua bera eraldatu nahi duen politika egitaraua lortu behar du. Boterera iritsi, bai, baina terminoaren beraren zentzua zalantzan jarrita, berau egituratuko duen praktika berriak ezarrita: kalitatezko parte hartze aktiboa.

Beraz, sozialismoak, egiten duen proposamen politikoan zein bere eguneroko jardunean, parte hartzea emantzipazioaren ardatza dela kontuan izan behar du, horretarako aukerak, egiturak eta informazio bideak ezarrita. Bistan denez, kalitatezko parte hartze hori modu berdinezalean eman behar da, pertsona bakoitzaren egoera abiapuntutzat harturik, pertsona guztiok ez baititugu berdin jasaten mendekotasun sistemak, beraz errealitate bakoitzari aurre egiten jakin beharko da.

3.- Ezkerraren iraultza: antolakuntza kultura benetan demokratikoak duen garrantzia

Alternatibak aurrebaldintza garbitzat du proposaturikoaren eta egindakoaren arteko koherentzia, oraina eta geroaren artekoa, zilegitasun soziala lortzeko. Gainera erroko demokrazia sozialismoari banaezin zaion kontzeptua dela uste du. Bi ildook nahastearen ondorioz, Alternatibak berebiziko garrantzia ematen dio erakundearen baitan kultura demokratikoa garatzeari.

Ohiko ezkeraren akats nagusienetakoa izan da (eta oraindik da) proposamen politikoa (etorkizuna) eta bere jarduneko errealitatea (oraina) erabat bereiztea. Horrela, gizarte demokratikoa ustez defendatzen den bitartean, militanteak egituran duen papera gutxietsi egin daiteke eta erabakiak gutxi batzuek hartu. Era berean feminismoaren aldarrikapena egin daiteke baina emakumeak praktikan boteretik at utzi. Edo komunikabideen gaineko kontrol demokratikoaren alde azaldu baina gero barneko informazioari muga gogorrak jarri.

Alternatiba, aldiz, erakundearen ikuspegi utilitarista honen aurka dago, eta hitzak eta ekintzen arteko koherentziaren alde egiten du, bai kanpora begira zein barrura begira. Beraz, erakunde politikoa ez da soilik helburu baten aldeko bitarteko bat, baizik eta *Alternatibak eskaintzen duen gizartearen eredu txikia* behar du izan. Hortaz, erakundea bera eraikitzen ari den alternatiba bat da, erronka bat, helmuga sozial eta politikoan dauden logika eta proiektuak barneratuko dituen. Erakundearen fokatzeko berri hau 4 arazoaren inguruan mahaigaineratzen da.

1. *Zilegitasun soziala handitzen du:* eguneroko jardunak gizartea eta boterea antolatzeko beste eredu bideragarritasuna eta egokitasuna garbi uzten badu soilik lortuko da zilegitasun soziala. Erakunde politikoak konfidantza sortu behar du, eraldakuntza estrategia horren baitan.
2. *Agenda esparruanitza ahalbidetzen du.:* beharrezkoa da erakundearen baitan bertan patriarkatuari, demokrazia formalari, informazio murriztari, eta abarri aurre egitea eta agente politiko anitzen eztabaida demokratikoa bermatzea. Orduan bakarrik eramango ahal da aurrera borrokaren esparru guztiak bere egingo dituen agenda politikoa. Ohikoa da demokrazia eskasa duten erakundeek eta lehentasunak esparru bakarra mugatzen dutenen arteko harreman zuzena. Eztabaida bilatzen duten erakunde ireki eta anitzak, ordea, gai dira ikuspegi politiko anitzak bateratzeko funtsezko adostasunen inguruan.
3. *Jatorrizko proiektuak bidea gal dezan mugatzen du:* zenbat eta distantzia txikiagoa egon oinarrian diren pertsonen eta erabaki esparruaren artean, zenbat eta gertuago egon militanteak eta erakundearen bizitza politikoa, orduan eta zailagoa izango da elite edo gutxi batzuen taldetxoek euren interes korporatiboekin men egitea jatorrizko ildo politikotik urrun.
4. *Beste agenteekin aliantzak egitea ahalbidetzen du:* eztabaida eta hausnarketa komunak bermatzen dituen erakunde irekia gai izan daiteke beste eragile politiko eta sozialekin indarrak biltzea helburu estrategiko garrantzitsutzat jotzea. Erakunde bertikal eta uniformeek, ordea, beste indarrekin elkarlana beti ere ikuspegi utilitarista eta bigarren mailako batekin aztertzen dute, batez ere herri mugimenduekiko harremana.

Alternatibak, beraz, garrantzia handia ematen dio bere antolakuntza egiturari (organigrama) eta antolakuntza kulturari (egituraren bizian eragiten duten moduak, baloreak eta politikak). Honetaz gain, erakundearen baitako demokrazia ezker alternatiboaren aldeko apustuan nahitaezkoa dela ere uste du.

Horrela, estatutook oinarrizko pausua dira helburu honetan, erakunde politiko sakonki demokratikoa, irekia, atsegina, dinamikoa eta integratzailea gauzatu eta zehazteko. Hurrengo sailean azalduko dira estatutook oinarrian dituzten estrategia ardatza eta irizpideak.

4.- Alternatibaren estatutuen estrategia ardatza eta irizpideak: militantzia demokrazia erroko demokraziaren eta feminismoaren lotura da.

Alternatibaren antolakuntza kulturak oinarri duen estrategia ardatza militantzia demokrazia da, erroko demokrazia eta feminismoa uztartzen dituena. Bi teoria hauek banaezinak, elkarren aberasgarriak eta beharrezkoak dira gure ustez. Horrela, erroko demokraziak analisi feministaren ikuspuntua behar du emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun bidegabeak topatzeko, hauek ekiditeko estrategia eta egitura zehatzak, ez neutroak, proposatu ahal izateko. Bestetik, feminismoek euren agendetan badituzte demokrazia eredu berri baterako ardatz estrategikoak: agente politiko feminista indartzearen lehentasuna; herritartasunaren, boterearen eta afiliazioaren kontzeptuaren berrikuspena; zainketaren moduko ikuspuntu berrien ezarpena, erakundearen antolaketa ulertzeko orduan funtsezkoak.

Beraz, erroko demokrazia eta feminismoa uztarturik, Alternatibak ***militantzia demokrazia*** proposatzen du estrategia ardatz moduan, *militanteen (emakumezkoak zein gizonezkoak) kalitatezko parte hartze aktiboa lehenesten duen antolaketa eredu moduan ulertua. Afiliatuek, beren aldetik, erakundearen ardura hartzeko konpromezua hartzen dute beren gain.* Beste hitzetan, Alternatibaren subiranotasuna afiliatuen multzoan datza, eta barne politikak afiliatuek kalitatez eta aktiboki parte hartu ahal izan dezaten bideratuko dira. Honako irizpideetan oinarrituko da militantzia demokrazia:

- **Demokraziaren erabateko defentsa**, demokrazia zuzena, zein parte hartzailea eta ordezkari demokrazia erakundearen bizitzan ezarririk.
 - *Demokrazia zuzena* lehenetsiko da, hau da, afiliatuek erabaki estrategiko guztiak, biltzar bakoitzaren -orokorra edo tokian tokikoa- eskumenen arabera, hartzeko gaitasun zuzena.
 - *Demokrazia parte hartzaileari* bere balioa ematen zaio, afiliatuek erabaki estrategikoez gain Alternatibaren gorputz politikoan ere parte hartzen baitute, Taldekako Osatze Mahaien bitartez, herri mugimenduei eta gizarteari irekiak zaizkienak.

- *Ordezkaritza zuzenaren* erabilera erabaki operatiboetara mugatzen da, ordezkararen figura berriz planteatzen da karguen errotatze sistema, kontu emate sistema, aukeraketa zuzena, biltzarrak kargua bertan behera uzteko aukera alderdiaren aldekoen asanbladak deitzeko beharra,...bezalako ideiei esker.
- **Botere oreka horizontala** organigramaren egituren artean. Esan moduan, biltzarrak (orokorrak zein tokian tokikoak) dira erabaki estrategikoak hartzeko eskumena dutenak, gainera taldekako osatze mahai kolektiboak daude, Alternatibaren gorputz politikoa oinarritik sortzen dutenak, afiliatuen borondatezko parte hartzearen bitartez. Ordezkaritza bitarteko organoak gutxienera mugatzen dira: Nazio Koordinakundea, erakundearen ahalegin ezberdinak koordinatzen dituena, eta Nazio Kontseilua, lurraldekako eta nazio mailako logikak uztartzen dituena eta biltzarren arteko egoera aztertzen duena. Bi erakundeek, gainera, lurraldeko zein taldekako osatze logiken ordezkariek dituzte, horrelako erakundeetan bi logika hauek duten garrantzia bermatzen da.
- **Afiliatuak zaintzea:** Alternatibaren estrategiarako afiliatuek duten garrantzia dela eta, nahitaezkoa da erakundetze eta antolatze kultura ondo zehaztea. Ildo honetan, afiliatuen garapena ahalik eta asebetetze maila altuenetan emateko politika eta neurriak ezartzeari deitzen diogu *afiliatuak zaintzea*.
 - *Informazio sistema garden eta garbiak* ezartzen dira afiliatuentzat, informazioaren hedatze horizontala bermatze aldera.
 - *Formakuntzarako etengabeko estrategia* lantzen da eztabaida ahalbideratzeko, eta afiliatuek iritzia emateko irizpideak izan ditzaten.
 - *Emakumeen kalitatezko parte hartze aktiboa indartzeko estrategia* indartzen da, aurrerapen osoa izateko arlo honetan, egiturak ezarrita – Emakumeen Mugimendu Autonomoa- eta enpoderatze prozesu zehatzak abiarazita, berdintasun neurri funtsezkoak ez ezik.
 - *Parte hartze metodologiak* bultzatzen dira, denen parte hartze egokia bermatzeko eta kalitatezkoak izan dadin bultzatuz.
 - Politikak ezartzen dira Alternatiba osatzen dugun gizon eta emakumeen *ardura elkarbanatua* bermatzeko.
 - *Kontraturiko pertsonen lan baldintza egokiak* bermatuko dituzten politikak zehazten dira.
- **Gardentasuna:** Organo bakoitzaren ardurak eta funtzioak garbiki adierazten dira, baita Alternatiban parte hartzen duen edozein figuraren eskubide eta betebeharrak ere; afiliazio formulak zehazten dira, zentsuaren analisi orokorrekina batera; berdintasun, txandakatze eta kargu berritze neurri objektiboak ezartzen dira; informazio eta ekonomia kudeaketa sistemak zehazten dira.

Laburbilduz, militanteentzako erakundeak sortzeko asmoz, eta esana eta eginaren arteko zein orainaren eta geroaren arteko koherentzia aurrera egiteko asmoz, erroko demokrazia, boterearen ikuspegi horizontala, afiliatuen zaintza eta gardentasuna bezalako irizpideen erabateko babesetik, estatutook aurkezten dira, antolaketa kultura berrirako oinarri, erakundea irekia, dinamikoa, atsegina, anitza eta uztartzailea izango bada.

I. TITULUA. ALTERNATIBAREN IZAERA ETA IRIZPIDEAK

I. Atala: Izaera

- 1. Art.** Alternatiba erakunde politiko subiranoa da, kapitalismoa eta menpekotasun forma guztiak gainditu nahi dituen askapen borroka ezberdinak uztartzeko gai den alternatiba sozialista sortzeko borroka iraunkorraren bidez.
- 2. Art.** Alternatibak bere burua Euskal Herriko mugimendu marxisten, feministen, ekologisten, internazionalisten eta soberanisten artean kokatzen du.

II. Atala: Jarduera esparrua

- 3. Art** Euskal Herria da Alternatibaren jardunerako esparrua. Esparru honen kanpoko edozein ekimen nazioarteko elkartasunean edo nazio-gaundiko esparruan lan egiteko indar subiranoen arteko lankidetzan txertatuko da.

III. . Atala: Egoitza eta ikurrak

- 4. Art** Alternatibak bere egoitza Venezuela Enparantzan 1 -1. ezk. ezk. izango du, dagokien organoek hau aldatzeko oztoporik gabe.
- 5. Art** Alternatibak logo moduan A hizkiaren logoa hartzen du, ondoko irudian azaltzen den hau, kolore gorri, beltz edo zuriaren gainean txandakatua. Era berean Alternatiba terminoa ere erabili ahalko du aipaturiko kolore eta grafiarekin, azpiko irudian ikusten den moduan.

II. TITULUA. ALTERNATIBA OSATZEN DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

I. Atala. Afiliazioa eta berau galtzea

- 6. Art a)** Alternatiban edozein pertsona afiliatu ahalko da -adina, sexua, herritartasuna, arraza, egoera zibila edo erlijioa dena delakoa dela ere- Estatuto hauetan aipaturiko baldintzak beteta proiektuan bere burua ikusi eta parte hartze aktiboa izateko gogoia badute.
 - b)** Alternatiban izena emateak Estatuto hauen onarpena dakar berarekin bat.

7. Art a) Alternatiban izen ematea Estatutoon V. Tituluan ezarritakoaren arabera egingo da.

b) Era berean, afiliatu izaera antzeko helburuak dituen beste edozein Elkarte edo alderdirekin dagoen elkartze, fusio edo integrazio akordioaren arabera lortuko da.

8. Art Afiliatu izaera borondateko bajagatik, egozteagatik -horretarako espedientearen ondoren- heriotzagatik edo ezarritako kuota denbora luzez ez ordaintzeagatik galduko da.

9. Art Afiliazio kuota 6 aldiz ez ordaindu izana, hilabeterokoa izanik, edo bi aldiz, hiruhilabeterokoa balitz, Alternatibako organoetan bozka eskubidea galtzea ekarriko luke egoera konpondu eta arautura itzuli artean.

II. Atala. Alternatiban afiliaturiko pertsonen eskubide eta betebeharrak

Lehen zatia. Afiliatuen eskubideak.

10. Art Alternatiban izen emandako pertsonen eskubidea eta betebeharra dute ahots eta bozaz parte hartzeko Nazio Biltzarrean, bere tokian tokiko Biltzarrean eta Taldekako Osatze Mahaletan.

11. Art Afiliaturiko pertsonen eskubidea dute Alternatibako ordezkariak organoetan aukeratzeko eta aukeratuak izateko, baita beraren kanpoko karguetan zein hautes zerrendetan, estatutoon X. artikuluan esandakoak arautua.

12. Art Afiliatuek Nazio Koordinakundeko, Tokian Tokiko Koordinakundeko eta Nazio Kontseiluko bileretan ahoz parte hartzeko aukera izango dute.

13. Art Afiliaturiko pertsona guztiek aukera dute Alternatibak sustaturiko ekimen eta jardueretan parte hartzeko zein berauek aurrera eramateko proposamenak egiteko.

14. Art Afiliatu guztiek eskubidea dute alderdiaren organoek harturiko erabakien, buruturiko, sustaturiko edo parte harturiko ekimenen eta erakundearen finantza egoeraren inguruko informazio eguneratua jasotzeko, zein Alternatibako organo guztien aktak ikusteko.

15. Art Afiliatu guztiek militantzia burutu ahal izateko informazioa eta formakuntza jasotzeko eskubidea dute.

16. Art Pertsona guztiek zor zaien errespetua jasoko dute euren iritzi politiko, moral edo bizitza pribatuko kontuen inguruan.

17. Art Adierazpen askatasuna eta erakundeak harturiko erabakiak kritikatzeko askatasuna onartzen da, beti ere Alternatiba osatzen dugun pertsonen zein estatuto hauekiko errespetuz. Kritika, publikoa egin baino lehen dagokion organo politikoari aurkeztu beharko zaio.

18. Art Alternatibak bere adierazpenetan zein bere jardunean emakumezko eta gizonezkoen arteko ardura elkarbanatua sustatuko ditu, lan, familia eta bakoitzaren bizi pertsonalaz gain, erakundearen militantzian.

19. Art Alternatibako kide guztien izen-abizenak eta euren tokian tokiko biltzarraren datua eguneratua izango da, afiliatu guztien eskura, pertsona bakoitzaren datuei zor zaien konfidentzialitatearen barnean.

20. Art Alternatibako emakumezko kideek eskubidea dute berezko gune bat izateko non enpoderatzea bultzatuko den eta kalitatezko praktika politikoa bermatuko den.

21. Art Alternatibatik dagokion barne zein kanpo babesa jasotzea bidegabeko erasoen aurrean, eta babes juridikoa jasotzea estatutu hauen mugen barruko jardun politikoa epaitegietan salatua izango balitz.

22. Art Edozein kidek alderdiko organoei bere eskubideen babesa eskatu ahalko die, baita estatuto hauen urraketa berme batzordera eraman ere, XX. Tituluan ezarritakoei jarraiki.

Bigarren zatia. Afiliatuen betebeharrak.

23. Art Estatuto hauek bete daitezten lan egitea.

24. Art Alternatibaren helburu eta helmugan hedapena egitea.

25. Art Alternatibaren organoek esparru guztietan harturiko erabakiak errespetatzea eta betetzea, abian jar daitezten lan egitearekin batera.

26. Art Alderdiaren Nazio Biltzarrean parte hartzea, bizilekuaren arabera dagokion Tokian Tokiko Biltzarrean gain.

27. Art Afiliaturiko pertsonak Nazio Kontseiluan eta Nazio Koordinakundean zein Berme Batzordean edo Alternatibako beste organoetan ahoz eta bozaz parte hartzeko eskubidea eta betebeharra dute bertarako aukeratuak izan badira.

28. Art Alternatibak esparru ezberdinetan garaturiko ekimen edo kanpainetan parte hartzea edo berauek bultzatzea.

29. Art Kide guztien kalitatezko parte hartze aktiboa eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko ardura elkarbatua sustatuko dituen erakundea eraikitzen laguntzea.

30. Art Nazio Biltzarrak ezarritako kuota bere epeetan ordaintzea.

III. Atala. Alternatibaren karguen arduradunen eskubide eta betebeharrak

31. Art Alternatibaren karguak dira erakundearen ardura postuak -ordainduak izan ala ez- dituztenak, eta, afiliatuak izan ala ez, Alternatibaren kargu publikoren bat dutenak.

32. Art a) Alternatibaren kargu publikotzat ulertzen da Alternatibaren zerrendetan edo Alternatibak bultzaturiko hautes zerrendetan erakundeak proposaturik aukeratuak izan diren pertsonak.

b) Orobat, Alternatibaren kargutzat hartuko dira, erakunde publikoetan zein Administrazio publikoaren menpeko organo edo enpresetako edozein mailatan edo erakundeetako taldeei laguntzeko erakundeak proposatzen dituen pertsonak, designazio politikoz aukeratuak.

33. Art Alternatibaren kargu guztiek harreman zuzena ezarriko dute erakundeoko egiturekin. Horretarako, hauentzat denontzat, Alternatibaren programa eta agendak euren lanerako ardatz funtsezko izan behar du.

34. Art Alternatibako karguak lortzeko baldintzak estatutoetan ezarritakoaren arabekoak izango dira. Designazio politiko bitarteko karguak eta erakunde publikoetako liberazioak dagokien erakunde taldeak proposatuko ditu eta Nazio Kontseiluak onartuko.

35. Art Alternatibaren kargu publiko orok Nazio Koordinakundeari bere ondasunen adierazpen sinatua emango dio bere jardunaren hasieran zein bukaeran, jardun horren gardentasuna, zintzotasuna eta praktika ona ziurtatu ahal izateko.

Lehen zatia. Alternatibaren karguen arduradunen eskubideak

36. Art Alternatibak begirunea izango die bere karguak dituzten pertsonen iritzi eta uste ideologiko, filosofiko eta erlijiosoei.

37. Art Alternatibako karguen ardura duten pertsonak eskubidea dute, euren eskumeneko esparruan, erakundearen ordezkaritza izateko erakundearen irizpideen baitan eta babes jasotzeko euren jardunean.

38. Art Alternatibako karguak dituzten pertsonak euren lanean eragin dezaketen erabakien berri emango zaie eta ahotsa izateko aukera izango dute euren jardunarekin loturiko gaiak jorratuko diren alderdiko organo guztietan.

39. Art Alternatibako karguen ardura duten pertsonak proposamen politikoak egin ahalko dizkiete erakundearen organoei.

40. Art Erakundeak laguntza teknikoa eta babes juridikoa eskainiko die karguei euren jardun politikoa, estatutoen baitan, gaitzetsia edo epaitegietan salatua izango balitz.

41. Art Alternatibako karguak dituzten pertsonak erakundeak ezarritako soldata edo kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dute.

42. Art Alternatibak bere karguei formakuntza jarraitua emango die euren jarduna garatu ahal izateko eta ohiko lan merkatura itzultzean beren formakuntza eta berregokitzean lagunduko du.

43. Art Alternatiban kargua duen edozein pertsonak eskubidea du parte hartzeko adierazpenetan zein bere jardunean emakumezko eta gizonezkoen arteko ardura elkarbanatua sustatuko dituen erakundeetan; lan, familia eta bakoitzaren bizi pertsonalaz gain, erakundearen militantzian.

44. Art Alternatibako karguak dituzten pertsonak eskubidea izango dute Emakumeen Gune Autonomoaren laguntza jasotzeko.

Bigarren zatia. Alternatibaren karguen arduradunen betebeharrak.

45. Art Alternatiban kargua duten pertsonak euren betebeharrak erakundearen oinarri eta programa politikoarekiko leialtasun eta zintzotasunez beteko dituzte.

46. Art Erakundearen organo egokiei karguaren jardunean eta jardunetik suertatuko informazio garrantzitsu guztia helaraziko zaie.

47. Art Kargu publikoen jardunetik ateratako ordainak erakundeari sartuko zaizkio zuzenean eta beren osotasunean.

48. Art Alternatibako karguek jarduna eraman ahal izateko zein ondoren lan merkatu ohikora itzultzeko formakuntza jarraia dakarte berarekin batera.

49. Art a) Idazkaritza Teknikoak eta ordezkaritza bitarteko organoek gutxienez urtean behin euren lanaren txostena emango diote aukeratu zituen organoari.

b) Erakunde talde bakoitzak urteroko bere jardunaren txostena eskainiko du, bere kideetako bakoitzaren ardura arloak azalduz. Udal taldeek txostena dagokien Tokian Tokiko Biltzarrari edo – halakorik izan ezean- Nazio Kontseiluari; Batzar Nagusietako, Nafarroako Parlamentuko eta kantonetako taldeek Nazio Kontseiluari eta Euskal Legebiltzarrekoak zein nazio-gaundiko taldeek Nazio Biltzarrari.

50. Art Alternatiban kargua duten pertsonak euren jardun esparruetara biltzarrek, taldekako osatze mahaiek eta erakundeko beste organoek garaturiko ekimen eta iritzi politikoak helaraziko dituzte; jardun horri loturiko gaiak jorratzean organo hauetan parte hartu beharko dute kargudunek.

51. Art Kargu publikoak dituzten pertsonak harreman jarraia mantenduko dute euren esparruko hautesleekin eta herri mugimenduekin, eta demokrazia zuzen eta parte hartzaileen aldeko dinamika sustatuko dituzte.

52. Art Erakundeetan, Alternatibako karguek bozka kohesioa mantenduko dute erakundearen organo egokien erabakiei jarraiki.

53. Art Alternatibako kargu guztiak bertan behera gera daitezke eta erakundearen eskuetan daude.

Hirugarren zatia. Alternatibaren kargu ordainduetan jarduteko mugak.

54. Art Inork ezingo du Alternatiban ordainduriko kargu bati 8 urtez baino gehiagoz jarraian eutsi, ezta ordaindutako kargu ezberdinetan 12 urte baino gehiagoz luzatu ere.

III. TITULUA. ALTERNATIBAREN ANTOLAKETA

I. Atala. Parte hartze zuzeneko organoak: Nazio Biltzarra, Tokian Tokiko Biltzarrak eta Taldekako Osatze Mahaiak

Lehen zatia. Nazio Biltzarra

55. Art Nazio Biltzarra da Alternatibaren organo subiraua eta afiliatuen nahiaren ordezkari nagusia.

56. Art Nazio Biltzarra Alternatiban kide diren guztiak osatzen dute.

57. Art Honakoak dira Nazio Biltzarraren funtzioak:

a) Erakundearen estrategia politikoa eztabaidatu, zehaztu eta erabakitzea, militanteek edo alderdiaren organoek aurkezturiko erresoluzioak, informeak edota emendakinen bozkaketaren bitartez.

b) Maila guztietako hauteskundeetara aurkeztearen inguruan erabakitzea.

c) Autonomia, estatu eta europar mailako hautes zerrendak onartzea.

d) Nazio zein nazio-gaindiko hautes programak eta hautes aliantzak onartzea. Beste hauteskundeetarako aliantzak osatzeko markoak eta irizpideak finkatuko ditu.

e) Eusko Legebiltzarrerako hautesgaiak izendatu edo kentzea, baita nazio-gaindiko erakundeen ordezkarietarako.

f) Tokian tokiko biltzarrik ez den tokietan, bertako afiliazioaren iritzia entzun ondoren, Udal zerrendak osatzea.

g) Koordinakundea osatzen duten pertsonak izendatzea edo kentzea, kontuan hartuta emakume eta gizonen arteko parekotasuna, Lurralde Historikoen ordezkariak eta Taldekako Osatze Mahaiak.

h) Tokian tokiko biltzarren kopurua eta banaketa onartzea.

i) Berme Batzordeari alderdiko kideek egindako arau-hausteen berri ematea, estatutook adierazten duten moduari jarraiki.

j) Erakundearen estatutoak eraldatzea.

k) Alternatibako lan baldintza ekonomikoak berrestea edo eraldatzea.

l) Idazkaritza Teknikoa osatzen duten pertsonak izendatzea edo kentzea.

m) Berme Batzordea osatzen duten pertsonak izendatzea edo kentzea.

58. Art Nazio Biltzarreko bilerak 3 pertsonak osaturiko mahai batek zuzenduko ditu, zeinak Nazio Kontseiluak aukeratuko dituen eta Biltzarreko 1. puntuan militanteen oniritzia eman beharko zaien. Kontseiluaren proposamena onartuko ez balitz, edo Ez-Ohiko Biltzarra balitz, Biltzarrera gerturatu diren pertsonen artean aukeratuko litzateke Mahaia.

59. Art Mahaiaren osaketan emakume eta gizonen arteko oreka eta euskararen ezagutza gordeko dira.

60. Art Biltzarreko Mahaiak bileraren akta jasoko du, emandako eztabaidak labur bilduta eta bozen emaitza eta lorturiko adostasunak aipaturik.

61. Art. Nazio Biltzar ohikoa sei hilabetez behin bilduko da. Ez-ohiko bilera ere izan daiteke bi Taldekako Osatze Mahaik, bi Tokian Tokiko Biltzarrek edo aipaturiko organo banak zein Alternatibako afiliazioaren %25ek eskatuko balu.

62. Art Nazio Biltzarreko bilerak baliokoak izango dira, bertara gutxienez militanteen %40 gerturatuz gero, mahaia da aipatu kopurua ziurtatzeko arduraduna.

63. Art Akordioak, erresoluzioak eta bozkaketak gehiengo simple bitartez erabakiko dira, estatutoen eraldaketa proposatzen denean izan ezik, horretarako Biltzarrean daudenen gehiengo absolutua beharko baita.

Bigarren zatia. Tokian Tokiko Biltzarrak

64. Art Tokian tokiko Biltzarrak dira alderdiaren jardun politikoa euren esparruetan garatzen dutenak.

65. Art Tokian tokiko Biltzarrak, pertsona guztion parte hartzera irekiak, behintzat Alternatibara afiliaturiko 3 pertsonak osatzen dituzte, biltzar horren eremuan.

66. Art Nazio Kontseilua izango da Tokian tokiko Biltzarren kopurua eta esparru geografikoa zehaztuko dituen, afiliazio kopuruei eta garapenari so eginda. Kopuru eta banaketa hori Nazio Biltzarrak berretsi beharko du.

67. Art. Tokian tokiko Biltzarrak subirau izango dira euren geografia esparruei dagokienean. Honakoak izango dira euren funtzioak:

- a) Tokian tokiko esparruan kanpainak, ekimenak eta ekintzak sustatzea.
- b) Nazio Biltzarrak ezarritako irizpide orokorren baitan udal hauteskondeetarako zerrendak, programa eta aliantza politika onartzea.
- c) Dagokion Lurralde Historikoan kantoj, Batzar Nagusi eta Nafarroako Parlamentuaren inguruko gaiak eztabaidatu edo zerrendak osatzeko ad hoc osaturiko Biltzarretan parte hartzea.
- d) Erakundeak adosturiko akzio politikoak gauzaraztea.
- e) Alderdiko beste organoei kanpainak, ekimenak eta ekintzak proposatzea.
- f) Alternatibako Idazkaritza Teknikoari afiliazio eskaerak bideratzea.
- g) Kideen fitxategia mantendu eta eguneratzea.
- h) Nazio Biltzarrerako ez-ohiko deialdia eskatzeko aukera.
- i) Nazio Koordinakundeari azken aurrekontu urteko txostena eta hurrengo urterako aurrekontua aurkeztea.
- h) Berme Batzordeari jakinaraztea, estatutoek adierazitako bideari jarraiki, militanteek edo organoek egindako edozein buruhauste.

68. Art. Tokian tokiko biltzarrak, gutxienez bi hilabetean behin bilduko dira.

69. Art a) 10 kide baino gutxiagoko tokian tokiko biltzarrek euren artetik pertsona bat aukeratuko dute 3 urtean behin bilerak zuzentzeko, aktak jasotzeko, afiliazio eskaeren berri emateko kideen artxiboak kudeatzeko eta adosturikoak Idazkaritza Teknikoari jakinarazteko.

b) Biltzarrean 10 pertsona baino gehiago balego, hiru urtean behin 3 pertsonak osaturiko koordinadora aukeratuko da -ahal den neurrian emakume eta gizonen arteko parekotasuna eta euskara jakietan bermatuz- euren artetik, aipatu funtzioen kargu geratu dena eta biltzerra dinamizatuko duena.

70. Art Tokian tokiko Biltzarren bilerak ontzat emango dira bertako afiliatuen %40 gutxienez agertzen bada. Erabakiak gehiengo sinple bitartez hartuko dira.

Hirugarren zatia. Taldekako Osatze Mahaia

71. Art Taldekako osatze mahaia Alternatibaren gorputz politikoa hausnartzeko, eztabaidatzeko eta osatzeko organoak dira.

72. Art Taldekako osatze mahaiek nazio esparruan dihardute. Halere, militante kopuru nahikoak lurralde edo tokian tokiko esparruan halako mahaia osatzeko borondatea

azalduko balu, egin ahalko da, nazio mailakoekin zubiak ezarrita analisi eta ondorio trukaketa emateko.

73. Art Taldekako osatze mahaiaik afiliaturiko 3 pertsonak gutxienez osatu beharko dituzte. Gai horietan interesa duten zaleek ere parte ahalko dute.

74. Art Nazio Biltzarrak onetsiko ditu talde hauen ardatzak eta kopurua.

75. Art Taldekako osatze mahaiaiek honako funtzioak izango dituzte:

- a) Erakundearen agenda politikoa proposatzea eta garatzea.
- b) Erakundearen kanpaina eta ekimenen eduki politikoak zehaztea eta proposatzea, erakundeko hausnarketa eta eztabaiden harira.
- c) Kide guztiei irekiriko formakuntza saioak antolatzea.
- d) Nazio Kontseilurako bere ordezkaria izendatzea edo kentzea.
- e) Nahi izanez gero, Nazio Biltzarraren ez-ohiko bilera eskatzea.
- f) Berme Batzordeari jakinaraztea, estatutu hauetan ezarritako bideari jarraiki, militanteek eta organoek egindako arau-haustekak.

76. Art Mahaiaiek euren funtzionamendu araudiak egin ahalko dituzte eta dinamizatzailerak aukeratu.

77. Art Mahaiaiek Nazio Kontseiluari urteroko aurrekontua eta azken urteko jardunari buruzko txostena aurkeztuko diote azaroan.

78. Art Mahaiaiek euren erabakiak gehiengo simple bitartez hartuko dituzte, eta bilerak ontzat emango dira gutxienez osatzen duten afiliatuen %40k bozkaketan parte hartu badu.

EMAKUMEEN GUNE AUTONOMOA

79. Art a) Emakumeen Gune Autonomoa Alternatibako kide diren emakumeek gorderiko parte hartze esparrua da, euren kalitatezko parte hartze aktiboa eta enpoderatzea sustatzeko helburuarekin, ikuspegi feministetatik burutuko lana batekin, erakunde politiko mistoetan emakumeek jasan izan duten desberdintasun egoera konpontzeko bidean.

b) Emakumeen Gune Autonomoa erakundearen berezko logiketan sartuko da, era berean beste organoekiko duen independentzia mantendurik.

80. Art. Funtzioak

Emakumeen Gune Autonomoaren helburua Alternatibako kide diren emakumeen enpoderatze indibidual zein kolektiboa da. Honetarako honako funtzioak beteko ditu:

- Alternatibako emakumeen jardun politikoa identifikatzea eta analizatzea.
- Alternatibako emakumeak enpoderatzeko jardun politikoa sustatze bidean egingo diren ekimenak bilduko dituen plana osatzea urtean behin.
- Erakundeko emakumeen hausnarketa eta eztabaida gune berezitua eskaintzea.
- Erakundeko emakumeen enpoderatzea sustatuko duen formakuntza zehatza definitzea
- Erakundeko emakume guztien jardun politikoa lagun izatea, bereziki ordezkari lanetan ari direnena.
- Alternatibako emakumeen parte hartze handiagoa sustatzea
- Emakumeen gaitasun zehatzen garapena indartzea, adierazitako beharretan oinarrituta eta kalitatezko jardun politikoa lortzeko tresna bezala
- Feminismo Mahaiarekin batera Alternatibako emakumeen parte hartzea sustatzeko Estrategia zehaztea, eta berau praktikara eramaten dela ziurtatzea
- Nazio Kontseilurako ordezkaria izendatzea edo kentzea.

81. Art. Funtzionamendua :

- a) Gune Autonomoak osatzen duten emakumeek beharrezkotzat jotzen duten adina saio burutuko ditu, urtean 4 bilera gutxienez.
- b) Parte hartzaileen arteko emakume bat aukeratuko da dinamizazio lanerako, bere funtzioen artean honakoak izango ditu: informazioa helaraztea, bilerak deitzea, eguneko ordenak eta aktak egitea, ordu eta bilera tokiak egokitzea,... Postua borondatezkoa, urte baterako eta txandakatua izango da.
- c) Alternatibako gainontzeko organoekin koordinatu beharko du, bereziki Feminismo Mahaiarekin. Mahai honetan gutxienez Emakumeen Gune Autonomoko kide bat izango da, eta interes komuneko gaietan elkarlana bultzatuko da.
- d) Osatuko duen urteroko plangintza ekonomikoaren arabera kudeatuko du aurrekontua.
- e) Aurrekontu honen kudeaketa xehetasunak dagokion organoari eman beharko dizkio.

II. Atala. Parte hartze delegatu bitarteko organoak: Nazio Kontseilua eta Nazio Koordinakundea

82. Art a) Ordezkaritza delegatu bidezko organoak hiru urtean behin berriztatuko dira.

b) Ordezkaritza delegatu bidezko organoetan kargua duen edozein pertsona, aukeratu zuen organoak berak postutik kendu ahalko du edozein unetan.

Lehen zatia. Nazio Kontseilua

83. Art Nazio Kontseiluak erakundearen lurralde eta nazio estrategiak koordinatzen ditu, biltzarren arteko egoera politikoa aztertzen du eta Alternatibako epe motz-ertaineko estrategia diseinatzen du.

84. Art. a) Nazio Kontseilua Nazio Koordinakundeko kideek, 5 kide edo gehiagoko Tokian Tokiko Biltzarren ordezkari banak, Taldekako Osatze Mahien ordezkari banak eta Emakumeen Gune Autonomoko ordezkari batek osatzen dute.

b) Nazio Kontseilua osatzen duten pertsonak estatuto hauen V. Tituluan ezarritakoaren arabera aukeratuko dira.

85. Art Nazio Kontseiluak honako funtzioak ditu:

- a) Erakundearen lurralde eta nazio estrategiak koordinatzea.
- b) Biltzarren arteko egoera politikoa aztertzea
- c) Epe motz-ertaineko estrategia diseinatzea.
- d) Barne zein kanpoko karguetarako hauteskundeak osatzeko egutegiak finkatzea.
- e) Batzar Nagusietarako, Nafarroako Parlamenturako, Eusko Legebiltzarrerako eta nazio gaindiko erakundeetarako hautes zerranda proposatzea.
- f) Designazio politiko bidezko izendatzeak eta dagokion erakunde taldeak egindako liberazio proposamenak onartzea ala bertan behera uztea.
- g) Afiliazio kopuruak eta euren balizko garapena kontuan harturik, Tokian tokiko Biltzarren kopurua eta egituraketa proposatzea.
- h) Nazio Biltzarraren bileretarako gai ordena zehaztea eta mahaia osatzeko proposamena egitea.
- i) Urtero erakundearen Aurrekontua eta Ekonomia Txostena onartzea.
- j) Hauteskunde kanpainen eta higiezin handien inguruko operazioak, urte bete baino gehiagoko kontratuak edo erakundearen aurrekontuaren %5 gainditzen duten gastuak bezalako diru irteeren aurrekontuaren diseinua eta banaketa onartzea.
- k) Berme Batzordeari jakinaraztea, estatu hauei jarraiki, militanteek edo organoek egindako edozein arau-hauste.

86. Art Nazio Kontseiluaren gai-ordena eta deialdia Idazlaritza Teknikoak egingo ditu, Nazio Koordinakundean esandakoaren arabera.

87. Art Nazio Kontseiluaren akta bertan parte hartuko duten Idazkaritza Teknikoko kideek egingo dute. Arrazoiren batengatik Idazkaritzako kiderik ez balego, bertakoen artean pertsona bat aukeratuko da akta jaso dezan, emandako eztabaidak, bozak eta akordioak laburki biltzeko.

88. Art Nazio Kontseiluko bilera tokiak txandakatzeko saiakera egingo da, bertaratzen diren pertsonen jatorriaren eta parte hartze-mailaren arabera.

89. Art Nazio Kontseilua hilabetean bitan bilduko da, Nazio Biltzarra egiten den garaietan izan ezik..

90. Art Nazio Kontseiluak erabakiak gehiengo sinple bitartez hartuko ditu, eta bozka eskubide dutenen %40k parte hartu badu emango dira ontzat.

Bigarren zatia. Nazio Koordinakundea

91. Art Nazio Koordinakundea da Nazio Biltzar eta Kontseiluak ezarritako estrategia gauatzeko organo arduraduna. Epe motzeko jardun politikoa desinatzen eta gauzatzen du eta nazio zein nazio gaindiko Alternatibaren ordezkaria du, beraz esparru hauetako harreman ordezkaria da.

92. Art Nazio Koordinakundea Nazio Biltzarrak aukeraturiko 9 pertsona afiliatuak osatzen dute –V Tituluan ezarritakoaren arabera aukeratuak-, eta gutxienez bat tokian tokiko biltzarrak dituen lurralde historiko banatua izango da eta bi Taldekako Osatze Mahaietan parte hartzen dutenak. Lau gutxienez emakumezkoak izango dira.

93. Art Bozka eskubidea duten Idazkaritza Teknikoko pertsona kopurua beti %50etik beherakoa izango da..

94. Art Nazio Koordinakundeak honako funtzioak beteko ditu::

- a) Epe motz-ertainerako erakundearen estrategia analizatzea eta diseinatzea.
- b) Beste erakundeetatik jasotako proposamenak aztertzea eta erantzutea.
- c) Kanpainak, ekimenak eta ekintzak proposatzea.
- d) Taldekako Osatze Mahaiek proposaturiko kanpainak, ekimenak eta ekintzak onartzea eta gauzaraztea.
- e) Alternatibaren urteroko txostena eta aurrekontua egitea.
- f) Berme Batzordeari jakinaraztea, estatu hauei jarraiki, militanteek edo organoek egindako edozein arau-hauste.

95. Art. Nazio Koordinakundearen akta bertan parte hartuko duten Idazkaritza Teknikoko kideek egingo dute. Arrazoiren batengatik Idazkaritzako kiderik ez balego,

bertakoen artean pertsona bat aukeratuko da akta jaso dezan, emandako eztabaidak, bozak eta akordioak laburki biltzeko.

96. Art Nazio Koordinakundeko bilera tokiak txandakatzeko saiakera egingo da, bertarutzen diren pertsonen jatorriaren eta parte hartze-mailaren arabera.

97. Art Nazio Koordinakundea astean behin bilduko da, Nazio Biltzarra edo Kontseilua egiten den garaietan izan ezik.

98. Art Nazio Koordinakundeak erabakiak gehiengo simple bitartez hartuko ditu, eta bozka eskubide dutenen %40k parte hartu badu emango dira ontzat

III. Atala. Idazkaritza Teknikoa.

99. Art. Idazkaritza Teknikoa pertsona liberatuek osatua dago eta erakundeari laguntza teknikoa eskaintzen dio, Nazio Biltzarrak, Kontseiluak eta Koordinakundeak harturiko erabakiak kudeatzeko eta gauzatzeko.

100. Art. Idazkaritza osatzen duten pertsonak Alternatibako afiliatuen artetik aukeratuko ditu Nazio Koordinakundeak eta Nazio Biltzarrak berretsi edo kargutik kenduko ditu hala baderitzo. Euren hautaketa aurrekontu, lurraldeen arteko oreka, gaitasun, gizon eta emakumeen arteko parekotasuna eta euskara menderatze irizpideetan oinarrituko da.

101. Art Idazkaritza Teknikoak honako funtzioak beteko ditu:

- a) Nazio Biltzarrak, Kontseiluak eta Koordinakundeak harturiko erabakiak kudeatzea.
- b) Taldekako osatze mahaiek proposaturiko formakuntza jarduerak koordinatzea.
- c) Nazio Koordinakundeak proposaturiko kanpainak, ekintzak eta ekimenak lotzea.
- d) Tokian Tokiko Biltzarrek abiarazitako kanpainak eta ekimenak laguntzea eta babestea.
- e) Erakundea administrazio eta finantza arloetan kudeatzea.
- f) Afiliatuen zerrendak osatzea, mantentzea eta eguneratzea.
- g) Nazio Koordinakundearen eta Nazio Kontseiluaren bileren akta egitea eta erakundeko afiliatu guztiei helarazteaz arduratzea.

IV. Atala. BERME BATZORDEA.

102. Art Berme Batzordea urtebeteko antzinasuna baino gehiago duten 4 militantek osatuko dute, Nazio Biltzarrak aukeratuak Alternatiban kargua ez duten eta ordezkariak delegatu bitarteko organoetan parte hartzen ez dutenak. Horietako bi behintzat emakumeak izango dira.

103. Art Berme Batzordeak Estatutoetan ezarritako bete dadin bermatuko du, zehapen-espeditentek tramitatuz eta ebatziz, estatutoen arauak hausten dituzten norbanakoen jokaerak azterturik.

IV. TITULUA ZIGOR ARAUDIA ETA GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURA

I. Atala. Arau-hausteak eta zigorrak

104. Art Arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke, bakoitza bere zigorrari lotua.

a) Arau-hauste oso larriek loturik daukate, zigor moduan, alderdiko afiliazioa bertan behera geratzea eta baja administratiboa.

b) Arau-hauste larriek loturik daukate afiliazioa aste batetik 2 urtera etetea eta arau-haustea izan lezakeen edozein barne kargutik egoztea.

c) Arau-hauste arinek loturik daukate afiliazioa egun batetik 7 egunera etetea edo zigor mehatxua jasotzea.

105. Art Arau-hauste oso larriak dira:

- a) Alderdiaren baliabideez jabetzea edo nork bere intereserako erabiltzea.
- b) Edozein erakundetan alderdiko taldetik ateratzea.
- c) Behin eta berriz kargu publikoaren jardunean alderdiaren organo egokiaren erabakien aurkakoak egitea.
- d) Beste alderdi edo hautes aliantza batean sartzea dagokion baimenik gabe.
- e) Alderdiaren organo egokiaren erabakiaren aurka, zentsura mozio bat babestea edo babesteari uko egitea.
- f) Alderdiaren edo edozein organoren irudia eta sinesgarritasuna zalantzan jartzen duten adierazpen publiko faltsuak egitea.
- g) Alderdiaren sinesgarritasuna zalantzan jarriko duten eskubide urraketak edo delituak egitea. Aipatu arrazoia dela eta prozedura judiziala ireki izan balitzaio, behin behineko afiliazio etetea jarriko zaio prozesaturiko pertsonari.
- h) Alderdiaren ordezkartzan edo alderdiak aukeraturik diren pertsonak ez ematea arauak ezarri dituzten ekarpenak.
- i) Bi edo arau-hauste larri gehiago egin izana.

106. Art Arau-hauste larriak dira:

- a) Alderdiaren organo egokiaren erabakiak ez obeditzea.
- b) Alternatibako karguen betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
- c) Alderdiaren sinesgarritasuna zalantzan jartzen duten aldarri publikoak pilatzea.

107. Art Arau-hauste arinak dira:

- f) Kuoten ordainketa eza.
- g) Alderdiaren erabakiei eta organoei errespetu eza eta erabaki horien aurkako jarduerak erakundeari kalte egin badiote.

II. Atala. Zigor prozedura

Lehen zatia. Zigor eskumena eta prozedura bermeak

108. Art Zigorrak ezartzeko eskumena Berme Batzordeari soilik dagokio eta estatutoetan ezarritako bidetik soilik gara daiteke. Inolaz ezingo da zigorrik ezarri ez bada prozesu osoa burutu eta ez bazaio ustezko arau-hausleari defentsarako aukera eman.

109. Art Zigor prozedurak instrukzio eta ebazpen faseak bereizi beharko ditu.

110. Art a) Instrukzio fasea berme batzordeko pertsona batek tramitatuko du, batzordeak berak aukeraturiko pertsonak.

b) Ebazpen fasea Berme Batzorde osoari dagokio.

111. Art Zigor prozedura honek oinarri izango ditu: Errugabetasun-Presuntzioa, Defentsa, alde guztien berdintasuna, frogen praktikan eta interpretazioan bat-batekotasuna, Audientzia printzipioak eta antzeko prozedura bermeak.

112. Art Zigor espedientea irekiko zaion militante orok honako eskubideak izango ditu:

a) Errugabetasun-presuntzio eskubidea.

b) Defentsa eskubidea.

c) Zigor Espedientean gertatzen direnen inguruko berriak jasotzeko eskubidea.

d) Berme Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, ezarritako zigorrari errekurtsioa aurkezteko eskubidea.

Bigarren zatia. Prozeduraren tramitatzea.

113. Art Berme Batzordeak zigor prozedura abian jarriko du ustez estatuto hauen arabera arau-haustea izan litekeen edozein gauzaren berri izanez gero 5 militantek gutxienez edo Alternatibako organo batek idatziz salatu ostean.

114. Art Berme Batzordeak ez du espedienterik hasiko salaketa argiko faltsua dela uste badu edo salaturiko gertaerek errugabetasun-presuntzioa hausteko edo arau-haustea izateko gutxieneko garrantzia ez dutela uste badu.

115. Art Espedientea ireki zaion militante edo organoari helaraziko zaion informazioan zehapen-espedientearen kopia jasoko du, gertaeren azalpena, zigorraren hasierako balorazioa eta instruktorearen izendapena barne.

116. Art Salaturiko militante edo organoak 15 eguneko epea izango du helegiteak egiteko Froga Proposizioa egiteko.

117. Art Instrukzio fase bitartean, instruktoreak Zuzenbidean onarturiko froga baliabideak bildu ahalko ditu.

118. Art Behin proba buruturik, espedientepeko militante edo organoak balioaren inguruko helegiteak egin ahalko ditu 8 eguneko epean.

119. Art Gehienez beste 15 eguneko izango den epean instruktoreak Ebazpen Proposamena egin beharko du.

Hirugarren atala. Erresoluzio fasea eta helegiteak.

120. Art Berme Batzordeak -espedientea instruitu duen pertsonak izan ezik- ebazpena egin beharko du, instruktorearen proposamena jaso ondotik gehienez 8 eguneko epean, izaera exekutiboa izango duen agiri idatzian, militante edo organoari helaraziko zaiona.

121. Art Espedientepeko militante edo organoak zigorra jasoko balu eskubidea izango luke ohiko helegitea jartzeko zigorra ezartzen duen organoaren aurrean, hots Berme Batzordearen aurrean, hilabeteko epean.

III. Atala. Arau-hausteen epez pasatze datak

122. Art Arau-hauste **oso larriak urtebeteko epean** pasako dira epez kanpo, ez bada lehenago espedienterik hasi.

123. Art Arau-hauste **larriak 3 hilabeteko epean** pasako dira epez kanpo, ez bada lehenago espedienterik hasi.

124. Art Arau-hauste **arinak hilabeteko epean** pasako dira epez kanpo, ez bada lehenago espedienterik hasi.

V. TITULUA. HAUTES ZERRENDAK OSATZEKO PROZEDURAK

I Atala. Irizpide orokorrak

125. Art Barru zein kanpo mailako hautes zerrendak osatzeko adostasuna, txandakatzea (berrizatzea) eta emakume-gizonen arteko parekotasuna bermatzeko kreamailera sistema kontuan hartuko dira. Azken hau ezinezkoa balitz, parekotasun irizpidea zerrendako lehen 4 postuetan behintzat gordeko da.

126. Art Adostasuna ezinezkoa balitz, zerrenda itxi eta blokeatuen sistema ezarriko da, zerrenda bakoitzean biltzarrera joandako pertsonen %10en bermea eta zerrendan azaltzen direnen onarpena izan beharko dute. Zerrendok aipaturiko parekotasun irizpideak gorde beharko dituzte.

127. Art Zerrenda bat baino gehiago egonik, zatidura handieneko proportzio sistema baten arabera banatuko dira postuak, bozen emaitzak aintzat hartuta. Koizienteen berdinketa izanez gero lehen berdinketan zerrenda minoritarioari emango zaio postua eta bigarren berdinketan nagusiari, ondorengoetan ordena horri eutsiz.

128. Art Kargu ezberdinetarako aukeraturiko pertsonak kargutik kenduko ahal dira izendatu zituen lurralde biltzarrak gehiengoz onartuz gero.

129. Art Edozein esparrutako hauteskundeetara joan ala ez eta nola joateko erabakia hartzeko azken eskumena Nazio Biltzarrak du.

130. Art Nazio Kontseiluak hautes zerrendak osatzeko egutegia osatuko du.

II. Atala. Udal hautes zerrendak osatzea

131. Art. Kantoietarako, Batzar Nagusietarako eta Nafar Parlamenturako hautes zerrendak osatzeko esparru hauetako biltzarrak ad hoc sortuko dira bertako afiliatuak deituta. Helburu berarekin deitu ahalko dira batzar hauek Alternatibak aipatu erakundeetan duen presentziaren inguruko gaiak jorratzeko.

III. Atala. Lurralde Historikoetarako hautes zerrendak osatzea

132. Art Batzar Nagusietarako eta Nafar Parlamenturako hautes zerrendak osatzeko esparru hauetako biltzarrak ad hoc sortuko dira bertako afiliatuak deituta.

133. Art Nazio Kontseiluak aipaturiko esparruetarako hautes zerrenda proposamena egingo du, bertako esparruetako biltzarren gehiengoari ahalik eta errespeturik handiena gordeta.

134. Art Lurraldeko Biltzarrek Nazio Kontseiluaren proposamena onartu ahalko dute edo proposamen berria osatzeko eta onartzeko bozketa egin. Biltzarrean proposamen alternatiboak azalduko balira, berauen bozketara pasako da 122. eta ondorengo artikuluetan zehazturikoaren arabera zerrenda osatzeko.

IV. Atala. Nazio zein naziogaindiko karguetarako hautes zerrenda osatzea.

135. Art Nazio Biltzarrari dagokio, Kontseiluaren proposamenarekin, Eusko Legebiltzarrerako hautes zerrenda onartzea edo osatzea, baita nazio gaindiko beste ordezkariak organoetarako ere.

136. Art Nazio Kontseiluak Eusko Legebiltzarrerako hautes zerrenda proposamen bat egingo du, bertako esparruetako biltzarren gehiengoari ahalik eta errespeturik handiena gordeta.

137. Art Nazio Biltzarrak Biltzarrek Nazio Kontseiluaren proposamena onartu ahalko du edo proposamen berria osatzeko eta onartzeko bozketa egin. Biltzarrean proposamen alternatiboak azalduko balira, beraien bozketara pasako da 122. eta ondorengo artikuluetan zehazturikoaren arabera zerrenda osatzeko.

V. Atala. Erakundearen presentzia gabeko zonaldeetarako hautes zerrendak osatzea.

138. Art Nazio Kontseiluak Tokian Tokiko Biltzarrik gabeko zonaldeetan hautes zerrendak proposatu ahalko ditu, inguruko biltzarren iritzia entzunda, eta Nazio Biltzarrak izango du eskumena zerrendok onartzeko edo aldatzeko, 122. eta ondorengo artikuluetan zehazturikoaren arabera.

VI. TITULUA. AFILIATUEN DATUEN KUDEAKETA

I. Atala. Alternatibaren kide izateko baldintzak.

139. Art Afiliatzea da Alternatibako partaide bihurtzen zaituena.

140. Art Alternatiban afiliatu ahalko da -dena delako adina, generoa, nazionalitatea, arraza, egoera zibila eta erlijioa duela ere- estatuto hauetako baldintzak betetzen dituen eta proiektuan bere burua ordezkaria ikusten duen eta parte hartu nahi duen pertsona oro.

141. Art Afiliaturiko pertsonen euren eskubide eta betebeharren inguruko informazioa emango zaie, eta estatutoen ale bana emango zaie edo hauetara iristeko sarbide telematikoen berri.

II. Atala. Afiliazio prozedura

142. Art Eskatzailea bizi den udaleko Tokian Tokiko Biltzarrean eskatu beharko du afiliazioa. 72 ordu baino gutxiagoko epean, hartu-agiriarekin batera, eskaera bidaliko dio Idazkaritza Teknikoari.

143. Art Ez balego jardueran den Tokian Tokiko Biltzarrik edo egoitzarik, lurraldeko beste biltzarretan, egoitza nagusian edo bide telematikoa bitartez eskatu ahalko da

afiliazioa. Kasu hauetan, 72 ordu baino gutxiagoko epean, hartu-agiriarekin batera, eskatzailearen gertuen dagoen biltzarrari bidaliko zaio.

144. Art Ez-ohiko kasuan berea ez den udaleko Tokian Tokiko Biltzarrean afiliatu ahalko da, bere udalean ez badago edo dagokien biltzarrak ados badaude.

III. Atala. Afiliatuen trebakuntza

145. Art Baldintzak beteta eta eskaera eginda, afiliazioa honako kasuetan emango da burututzat:

a) Eskatzailea bizi deneko udaleko Biltzarrean egin bada eskaera, Idazkaritza Teknikoak eskaera jaso zuen unetik.

b) Eskaera beste bideren batetik bideratu izan balitz, eskatzailea bizi deneko udaleko Biltzarrak -edo halakorik ez balego- gertuen duen Biltzarrak eskaera jaso zuen unetik. Eskaera bidali ondoreneko 72 orduetan ez balitz jaso izanaren zeinurik izango, berriz ere bidaliko da, eta une horretatik afiliazioa burututzat emango da.

c) Bizilekua ez den biltzar batean eskatu izan balitz, afiliazioa bizilekuan burututzat emango da, bi aldeak ados jartzean, ordea, mugimendua emantzat hartuko da.

IV. Atala. Biltzar aldaketa

146. Art Pertsona afiliatuek bizileku edo lan kontuengatik biltzar batetik bestera mugitzeko eskaera egin dezakete.

147. Art Eskaera idatziz egingo zaio tokian tokikoak koordinatzen dituen organoari eta aste bete baino gutxiagoko epean, jasotze-agiriarekin batera, Biltzar berriari eta Idazkaritza Teknikoari helaraziko zaio.

148. Art Afiliaturiko pertsonak bere eskubideak biltzar berrian izango ditu azken honek eskaera jaso duela jakina den unetik.

149. Art Afiliaturiko pertsonak bizileku aldaketa edo lana ez diren arrazoiak direla eta eskatuko balu mugimendua, 145 eta 146 artikuluek diotenaren arabera jokatuko litzateke, baina ez da aldaketa onartuko bi biltzarrak ados jarri arte.

V. Atala. Informazio eta artxibo betebeharra

150. Art Idazkaritza Teknikoak afiliazio berrien eta mugimenduen berri emango dio Nazio Koordinakundeari eta Nazio Kontseiluari, hauek bildu bezain laster.

151. Art Idazkaritza Teknikoak Alternatibako afiliatuen zerrenda osatu, mantendu eta eguneratuko du. Era berean, Tokian Tokiko Biltzar bakoitzak bere zerrendekin gauza bera egingo du.

152. Art Edozein afiliatuk jaso ahalko du informazioa bere tokian tokiko biltzarreko pertsonen izen, abizen eta telefonora. Datuok koordinazio lokalerako organoak- edo egon ezean- Idazkaritza Teknikoak emango dizkio, eskatu osteko 10 eguneko epean.

153. Art Nazio Koordinakundea eta Nazio Kontseilua osatzen duten pertsonen Alternatibako afiliazio osoaren izen, abizen, helbide eta asanblada lokalaren datuak eskura izango dituzte. Datuok eskaeratik 10 eguneko epean emango zaizkie.

154. Art Idazkaritza Teknikoak Euskadiko Kontseilu politikoari edo koordinazio lokal organoari berri emango dio, zerrendak osatzeko edo Nazio zein beste esparruko beste Biltzar erabakitzailearen aurretik, kuotak egunean ez dituzten pertsonen inguruan, bozka eskubidea bertan behera uzteko.

VI. Atala. Tokian tokiko lokalen, egoitza nagusien eta helbideen betebeharra.

155. Art Tokian tokiko Biltzarren kopurua eta egituraketa, euren egoitzak eta helbidea -posta edo elektronikoa- publikoak eta eskuragarriak izango dira pertsona guztientzat.

156. Art Posta zein helbide elektronikoa Nazio Kontseiluak onartuko ditu.

VII. TITULUA. ALTERNATIBAREN EKONOMIA ANTOLAKETA

I. Atala Irizpide orokorrak

157. Art Alternatibaren kudeaketa ekonomikoa gardentasunean, austeritatean, berdintasunean eta lan militantearen sustatzean oinarrituko dira.

II. Atala. Patrimonia erabiltzeko gaitasuna

158. Art Alternatibak bere helburuak betetzeko behar dituen jabetza eta eskubideak erosi, erabili, kudeatu edo alokatu ahalko ditu.

159. Art Alternatibaren patrimonia honakoa da:

- a) edozein tituluren bitartez erositako ondasunak, higigarriak edo higiezinak;
- b) afiliazio kuota ohikoak zein ez-ohikoak, nahitaezkoak eta borondatezkoak; l
- c) kargu publikoek, hauteskundeetan aukeratuek zein designazio bidez hautatuek, nahitaez ordaindu behar dituzten kopuruak;
- d) jasotako legatu edo emariak;
- e) ondasunetatik eta Alternatibaren berezko jardueretatik jasotako etekinak;

f) hauteskunde gastuak eta ohiko jarduna finantzatzeko jasotako diru-laguntza publikoak;

g) Alternatibako erakunde taldeetako diru-sarrerak.

III. Atala. Afiliazio kuotak

160. Art Alternatiban afiliaturiko pertsonen erakundearen sostengu ekonomikoan parte hartu behar dute helbideratze bankario bitartez burutuko den ohiko kuotaren ordainketaren bidez.

161. Art Kuotek afiliatuen diru-sarreretik progresibitateerantz joko dute. Euren kopurua eta maiztasuna Nazio Biltzarrek aukeratu beharko du Nazio Kontseiluaren proposamenaren arabera.

IV. Atala. Kargu publikoak dituztenen soldata

162. Art Alternatibako kargu publiko guztiek, aukeratuak edo designatuak, Alderdiaren sostengu ekonomikoan parte hartu behar dute, karguaren ondorioz jasotako dirua Alternatibari sartuz.

163. Art Nazio Kontseiluak bertako langileen zein kargu publikoen soldata berdina edota dietak zehaztuko ditu.

V. Atala. Alternatibaren aurrekontua

164. Art Alternatibak erakunde osoaren Aurrekontua onartuko du, alderdiaren antolaketa maila guztien sarrerak eta irteerak kontuan hartuko dituena.

165. Art Nazio Koordinakundeak Urteroko Aurrekontua prestatuko du, Nazio Kontseiluari aurkezteko aurrekonturiko jardunaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.

166. Art Era berean, Nazio Koordinakundeak Nazio Kontseiluari aurreko jardunaren ekonomia balantzea aurkeztuko dio, urte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehen.

167. Art Aurrekontua zein Balantzea laburki argitaratuko dira eta edozein afiliaturen esku geratuko dira kontsultarako.

VI. Atala. Baliabide ekonomikoak banatzeko irizpideak.

168. Art Baliabideen banaketak Alternatibako organo guztien funtzionamendua bermatuko du.

169. Art Tokian tokiko Biltzarrek eta Taldekako Osatze Mahaiek aurrekontu proposamena eta aurreko jardunaren balantzea aurkeztuko dute, Nazio Koordinakundeak kontuan har dituzten aurrekontu orokorra egiteko.

170. Art Tokian Tokiko Biltzarrek eta Taldekako Osatze Mahaiek oinarritzko asignazio finkoa izango dute eta beste bat moldagarria daukaten pertsona kopuruaren eta aurkezturiko balantze zein aurrekontuaren arabera aldatuko dena.

Art 170º Hauteskunde kanpainen aurrekontua, diseinua eta banaketa, zein higieziari eta urte bat baino gehiagoko luzaera duten kontratuei eragiten dien edota erakundearen %5 gaitzen duten gastuak Nazio Kontseiluak onartu beharko ditu.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria Nazio Kontseiluak 6 hilabeteko epean egoitza elektronikoa eta komunikabide telematikoei buruzko araudia onartuko du, VI. Tituluan aipaturiko komunikazioetarako baliogarria izango dena.

Bigarren xedapen gehigarria Nazio Kontseiluak Alternatibako soldatapeko pertsona guztien lan baldintzak onartuko ditu, eurekin hitz egin ondoren, 6 hilabete baino gehiago luzatuko ez den epean.